

5/2001 IRIZPENA

Europar Batasuneko EQUAL Ekimenaren diru laguntzei Euskadiko Autonomia Erkidegoan eutsi ahal izateko lehen deialdia araupetzen duen Aginduaren Proiektuaren gainean.

Bilbon, 2001eko martxoaren 30ean

I.- AURREKARIAK

Otsailaren 15ean Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Kontseiluan Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailaren idatzia sartu zen, non eskatzen baitzen Europar Batasuneko EQUAL Ekimenaren diru laguntzei Euskadiko Autonomia Erkidegoan eutsi ahal izateko lehen deialdia araupetzen duen Aginduaren Proiektuaren gaineko Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Kontseiluaren txostena, ekainaren 17ko 9/1997ko Legearen 3.1 a) artikuluan ezarritakoaren arabera.

Agindu Proiektu horrek, lan merkatuko desberdintasunen aurka borrokatzeko metodo berriak sustatu eta bultzatzeko Europar Batasuneko EQUAL Ekimenaren barruan sartzen diren proiektuen deialdian, zeinen nondik-norakoak 2000ko maiatzaren 5eko DOCEan Europar Batzordeak 14 Estatu kideei helarazitako komunikazioan argitaratu baitziren, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailaren baterako finantzaketari dagozkion diru laguntzak araupetzen ditu. Deialdi hori egin ahal izateko oinarriak abenduaren 26ko 302/2000 Dekretuan daude. Dekretu horrek diru laguntza horiek programa horren barruan sartzen dituen eta Prestakuntza Okupazionalaren programa araupetzen duen eta Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailburuari EQUAL Ekimena Programa hori Espainiar Estatuan garatuz doan faseei jarraituz garatzeko eskumena ematen dion maiatzaren 16ko 83/2000 Dekretua aldarazi zuen.

Aginduaren Proiektuaren kopia berehala banatu zitzaizen Kontseiluaren Osoko Bilkurako kide guztiei, egoki irizten zieten proposamen eta iritzia bidal zitzaizkien, eta proposamen eta iritzioak Batzorde Iraunkorrera edo zegokion Lan Batzordera helarazteko, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Kontseiluaren Funtzionamenduko Arautegian ezarritakoaren arabera.

Martxoaren 9an Gizarte Garapeneko Batzordeak lan bilera izan zuen, eta Kontseiluaren Osoko Bilkurara bidali zen Irizpiden Proposamena eman zuen. Kontseiluaren Osoko Bilkurak 2001eko Martxoaren 30ean Proiektua onestea erabaki zuen.

II.- EDUKIA

Europar Batasuneko EQUAL Ekimenaren Euskadiko Autonomia Erkidegoko diru laguntzei eutsi ahal izateko lehen deialdia araupetzen duen Aginduaren Proiektuaren testuak hitzaurrea, 15 artikulua eta Amaierako hiru Xedapen ditu.

Hitzaurrea:

Hitzaurrean esaten da Europako Enpleguaren aldeko Estrategiaren eta EAeko enplegu eta prestakuntzarako politika aktiboen xedea gizarte talde guztietarako enplegu tasa nabarmen haztea dela, guztien lan merkatuko partaidetza berdintasuneko baldintzetan izan dadin bermatuz. Xede horri begira, Europako Erkidegoen Batzordeak maiatzaren 5ean komunikazio bat argitaratu zuen, "non Batasuneko EQUAL Ekimenaren nondik-norakoak ezartzen baitira, nazio mailaz harantzagoko lankidetzari dagokionez, lan merkatuko mota guztietako bereizkeria eta desberdintasunen aurkako borroka metodo berriak sustatzeko".

Batasuneko Ekimen honen esparruan, Europako Gizarte Fondoaren diru laguntzen bidez nondik-norako horiek betetzen dituzten, Estatu kide bakoitzak aurkeztutako proposamenetan sartzen diren eta Europako Erkidegoen Batzordeak Batasun Ekimeneko Programa gisa onetsi dituen jarduerak finantzatuko dira.

Agindu honen bitartez, Europako Gizarte Fondoak eta Eusko Jaurlaritzak batera finantzatutako EQUAL delakoak arraza, jatorri etniko, sexu, erlijio, sinesmen, ahalmen urritasun, adin zein sexu joeren ondorioz lan merkatuan izaten diren bereizkerien aurka borrokatzeko estrategiaren barruan sartu nahi du.

Xedapenen gorputza:

1. Artikuluak Aginduaren xedea definitzen du, alegia, Eusko Jaurlaritzak Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailaren bitartez emango dituen laguntzak onartzeko baldintzak eta oinarriak ezartzea, EQUAL ekimenaren barruan, lan merkatuan izaten diren edozein motatako bereizkeria eta desberdintasunen aurka borrokatzeko metodo berriak sustatzen dituzten proiektuak garatzeko, Europako Gizarte Fondoaren EGBren Espainiarako Unitate Administrazioailearen Deialdiaren esparruko laguntzei eusteko aukera emanez.

2. Artikuluak 2001-2004rako lehen deialdirako eskariak aurkezteko epea ezartzen du, EHAOean argitaratzen den egunaren biharamunetik hasi eta bi hilabeteko epea aurreikusten delarik. **3. Artikuluak** dio finantza zuzkidura gehienez 600 milioi pezetakoa (3,6 milioi euro) izango dela, 2001eko ekitaldirako ordaintzeko 200 milioi pezetako (1,2, milioi euro) kredituan eta 2002rako konpromisozko 400 milioi pezetako (2,4 milioi euro) kredituan banatuta.

4. Artikuluak diruz laguntzeko modukoak izango diren proiektuak araupetzen ditu, Espainiar Estatuak Batasuneko Ekimenaren Programan agertzen direnen artean hautatu dituen sei gai eremuetakoren baten gainekoak izan beharko dutenak (integratzeko arazoak dituzten pertsonak lan merkatura iristeko eta berriro sartzeko bidea erraztea, lan merkatuko arrazakeria eta xenofobiari aurre egitea, enpresak sortzeko prozesua denontzat irekitzea hiri zein landa eremuetan, enpresa eta langileak aldaketa ekonomikoetara eta informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien erabilpena molda daitezzen sostengatzea, familiako eta laneko bizitza uztartu eta gizon eta emakumeen arteko desorekak murriztea, laneko bereizketak ezaba daitezzen alde eginez), eta Programa horretan agertzen diren hautatzeko jardueretara mugatuko direnak.

5. Artikuluak ondoko mota hauetakoak izan ahalko duten finantzatzeko moduko ekintzak zeintzuk diren adierazten du: Garapeneko Elkarteen eta nazio mailaz harantzagoko lankidetzaren itunen ezarpena (gutxienez 6 hilabeteko iraupenekoak) eta Garapeneko Elkarteen lan programak betetzea (gutxienez 24 hilbateteko iraupenez). Horren osagarri, behin 2. ekintza hasi ondoren 3. Ekintzaren kargura EGFrekin batera finantzatutako jardueretan parte hartzeko finantzaketa gehigarria eskatu ahal izango da (sare telematikoak sortzea, jokaera onen hedapena eta oihartzuna nazio mailako politikan).

6. Artikuluak Agindu honetan araupetzen diren laguntzen erakunde onuradunak ezartzen ditu, Prestakuntza Okupazionalaren Programa araupetzen duen maiatzaren 16ko 83/2000 Dekretuaren 5. artikuluan aurrakusten direnak, hain zuzen, a) atalean adierazten direnak ezik, betiere baldintza batzuk betetzen badituzte (Garapen Elkartek osa ditzaten eta Equal Ekimenaren bitartez laguntzeko modukoa den proiektu bat jasotzen duen eskaria aurkezten badute).

7. Artikuluak 1784/99 Arautegiaren (EB) 3. artikuluan ezarritako EGFAren hautazkotasunaren eremuari erantzungo dioten laguntzeko moduko jarduerak adierazten ditu, 1260/99 Arautegiaren (EB) 21.2 artikuluan eta 1784/99 Arautegiaren 5.2. artikuluan arabera gainerako egiturazko fondoan hautazkotasun eremuei erantzun diezaieten jarduerak jakin batzuk ere onetsi ahal izango direlarik.

8. Artikuluak Equal Ekimenaren esparruan garatuko diren proiektuek bete behar dituzten baldintzak araupetzen ditu (nazio mailaz harantzagoko lankidetzaren oinarritzea, proiektuaren jarduerak udal, eskualde, nazio edo batasun mailatan garatutako politiken osagarri izatea, dimentsio askotako arazoaren tratamenduan ikuspegi integratua izatea, gaitzearen oinarria, politikak aplikatzeko ikusegi berritzaileak proposatzea, politika orokorretara eskualdatzeko ahalmena izatea, generoaren ikuspegia zeharka eranstea).

9. Artikuluak proiektu horien finantzaketarako eskariak nola eta non aurkeztu behar diren adierazten du, bai eta aginduzkoa den dokumentazioa zein den ere, eta **10. Artikuluak** dio eskari horiek aztertu eta balioztatzekeo prozesu batean sartuko direla baztertzeko arrazoiren bat duten egiaztatzekeo.

11. Artikuluak, bere aldetik, Prestakuntza Okupazionalako Programa araupetzen duen 83/2000 Dekretuaren 9. artikulua ezartzen dituen terminoetan, Ebaluazio Batzorde baten bitartez Equal proiektuak baloratu eta hautatzeko prozesua araupetzen du, eta **12. Artikuluak** hautapenerako irizpide orokorrak ezartzen ditu (nazio mailatik harantzagoko lankidetzeta, osagarritasuna, ikuspegi integratua, gaitzea, berrikuntza, politika orokorretarako eskualdatzea eta aukera berdintasuna), beste batzuek eranstean gain (teknologia berrien sustapena, 94-99 epean indarrean izandako Batasuneko Ekimenetan ikasitako aplikazioa, kalitatearen kontrolaren sistema baten aplikazioa, mota guztietako oztupoak ezabatzea, ingurumena babestearen aldeko neurriak sartzea).

13. Artikuluak ebazpenerako prozesua ezartzen du, eta **14. Artikuluak** erakunde onuradunek proiektuek eragindako gastuak justifikatzeko modua, eta **15. Artikuluak** Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren baterako finantzaketaren ordainketa.

Amaierako Lehen Xedapenak administrazioko prozedurari dagokion Agindu honen ordezkari erregimena adierazten du, eta **Amaierako Bigarren Xedapenak** Agindu honen aurkako helegiteak egiteko bideak erakusten ditu eta, azkenik, **Amaierako Hirugarren Xedapenak** Legea Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean indarrean jarriko dela dio.

III.- OHARRAK

Agindu Proiektu honek Europako Gizarte Fondoak Equal Ekimenaren esparruan 2001-2004 tarterako deialdirako EAerako onets zitzakeen programei finantzaketako beharrezko estaldura emateko baldintzak eta oinarriak araupetzen ditu. Hartara, Eusko Jauriritzak E.B.ren irizpideei jarraituz harekin batera finantzatu dituen proiektuak hautatuko ditu, eta laguntzak emango ditu Europako Gizarte Fondoaren Administrazio Sailak proiektuak onesten baditu.

Batasuneko Equal Ekimen honek programazioko lehenagoko 1994-96 eta 1997-99 tarteetako Enplegu eta Giza Baliabideen Batasuneko Ekimenen tokia hartzen du, eta artikulatzen da Now programan (emakumeen enplegurako aukeren berdintasuna sustatzera bideratzen dena), Horizon programan (gizarteko pertsona talderik ahulenak, bereziki ahalmen urrikoak, lan merkatura sartzeko aukerak hobetzeko), Integra programan (beren beregiko arazoak dituzten taldeetako pertsonen lan merkatura sartzeko laguntzeko, hala nola, etorkinei, errefuxiatuei, drogazaleei, preso eta preso ohiei, gutxiengo etnikoetakoei, aterperik gabeko pertsonen, eta gizarte bazterkeria jasaten duten bestelakoei), Youthstart programan (eskola behar baino lehen utzi dutelako prestakuntzarik ez duten, langabezian zein azpi enpleguan dauden eta baztertuak izateko arriskua duten 20 urtetik beherako gazteentzat), eta Adapt ekimenean (langileak industriako eraldaketetara egokitzen eta lan merkatura hobetzen laguntzen ahalegintzen dena). Azken horiek Prestakuntza Okupazionalaren Programa araupetzen zuen abenduaren 24ko 304/1996 Dekretuaren bidez finantzatu izan diren bitartean, Batasuneko Ekimen berria onetsi berri den abenduaren 26ko 302/2000 Dekretuaren bidez finantzatu da. Dekretu berri honek Prestakuntza Okupazionalaren Programa araupetzen duen, eta hasieran Ekimen honen finantzaketa aurreikusten ez zuen maiatzaren 16ko 83/2000 Dekretua aldarazten du.

Horren harira, uste dugu ona dela Eusko Jauriritzak Europako Fondotik datozen fondoekin batera Equal Ekimen honen eremuan EAetik aurkezten diren proiektuak harekin batera finantzatzea, lan merkatuaren funtzionamendua hobetzeko helburu baliagarriak lortu nahi direlako edo, gutxienez, sortzen diren balizko desorekak murrizten direlako, ekonomia eta gizarte mailako ongizate handiagoa iristen lagunduz.

Hala ere, gure iritziz baterako finantzaketa hau, batik bat prestakuntzako ekimenez ari denean eta proiektuak lanean ari diren pertsonen ere ukitzen dien heinean, Hobetuz-en barruan gauzatu behar da, Hobetuz baita EAEn prestakuntza etengabearen gainekoa kudeatzeaz arduratzen den erakundea, eta horrela prestakuntza etengabearen kudeatzean

batasunerako dagoen borondatea errespetatzen baita, nahiz eta Espainiako gobernuak finantzaketa gutxiegi emanez Hobetuz-en garapena oztopatzen ari den.

Horren harira, eta orokorrean, uste dugu gure erkidegoan egin daitezken enplegu politikei dagokienean dagoen arazo nagusia Eusko Jaurlaritzak okupazioaren gaian eskumenik ez duelako dator. Halatan, Enplegurako politika aktiboak – Prestakuntza Okupazionala, besteak beste- eta pasiboak INEMen eskumena direnez, proiektu hau enplegu eta prestakuntzako zerbitzu integral batetik kanpo kokatu behar da eta, ondorioz, eragingarritasuna mugatu egiten zaio langabezia dauden pertsona guztiak lan merkatuan txertatu ahal izateko eta horretarako aukera berdinak eskaini ahal izateko orduan.

Agindu Proiektu honen zenbait alderdi zehatzetara sartuta, uste dugu bere 11 eta 12. artikuluetan aurkeztutako proiektuak baloratu eta hautatzeko jasotzen diren irizpideen artean, EAeko Gaitasun Profesionalaren sistemari lotutako gaitasun profesionala egiazta dezaketen ikastegiaren gainean dagoen Prestakuntzako Katalogo Modular Integratuaren betekizunak ere eranstea baloratu beharko litzatekeela. Kontua lan merkatuan txertatzeko zailtasun berezia duten giza taldeen laneko merkatuan txertatzea sostengatzea denez, uste dugu, helburu hori betetzeko, duten gaitasun profesionala baloratu behar dela.

Bestalde, proiektuen Ebaluazio Batzordearen eraketarako Prestakuntza Okupazionalaren Programa araupetzen duen maiatzaren 16ko 83/2000 Dekretuaren 9. artikulura jotzen da, eta bertan dio batzordean Enplegu eta Prestakuntzako Zuzendariak izendatutako 4 teknikari egongo direla, gutxienez. Gure iritziz, batzorde horretan gizarte alorreko mintzakideen partaidetza ziurtatu beharko litzateke.

Harrigarri irizten diogu, halaber, Agindu Proiektu honetan EAEn proiektu horien ebaluazioa eta jarraipena egiteko inolako sistemarik ez ezartzeari, zeren proiektu desberdinen ikuskaritza, jarraipena eta ebaluazioa oinarritzko eginkizuna baita dituzten ekonomia eta gizarte mailako ondorioengatik eta, horretara bideratzen diren herri baliabideen bolumenarengatik, funtsezkoak diren enplegua eta giza baliabideak sustatzeko aplikatu daitezkeen neurri desberdinen aurrerapena eta eragingarritasuna baloratzeko orduan.

Gure iritziz, proiektuen eragingarritasuna eta gizarte errentagarritasuna baloratuko dituen ebaluazio metodoa ezarri beharko litzateke. Hartara, uste dugu eginkizun hori Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Saileko Prestakuntza eta Enpleguaren Sustapenerako Herri Baltzua den Egailan, S.A.k eta Enplegu eta Prestakuntza Programaren Jarraipenerako Batzordeak egin dezaten aurreikusi beharko litzatekeela.

Amaitzeko, gure ustez Agindu Proiektu honek legegintzako teknikaren gaietan zenbait akats ditu. Hala, agindua ez da oso argia eta ulertzeko zaila ere bada, batez ere Equal Ekimena ezagutzen ez dutenentzat. Neurri batean, erabiltzen den terminologiarengatik da, zeren batasuneko legediaren berezko terminologia izanik ulertzeko zaila baita. Kontzeptu horien adierazpen eta definizio egokiak Aginduaren kalitatea hobetuko luke. Aldi berean, zenbait arau nahasiak dira multzoan hartuta. Ez da argi geratzen eskaria aurkezten denetik laguntzak ematen diren artean Enplegu eta Prestakuntza Zuzendariaren erabakiaren prozesua zein den, eta baliteke ondo egituratuta ez dagoelako izatea.

Iritzi hauek emanda, Euskadiko EGBk egoki irizten dio Agindu Proiektuaren artikuluen gaineko ondoko **Oharrak** egiteari:

Agindu Proiektuaren 4. Artikulua

Euskadiko EGBk bidezkoa irizten dio f)atalean, “gizon eta emakumeen arteko desorekak murriztu eta laneko bereizkeria ezabatzearen alde egitea” dioen tokian, horren ordez “**gizon eta emakumeen arteko desorekak eta laneko bereizkeria ezabatzea**” esateari, zeren, lehen formulazioa Batzordeak Estatu kideei Equal Ekimenaren gaineko nondik-norakoak ezartzeko egindako komunikazioaren 16. h) puntuan ezarritakoa izan arren, uste baitugu horrela proiektu horiek izan behar duten amaierako helburua zein den indartzen dela.

Agindu Proiektuaren 6. Artikulua

Artikulu honetan Agindu honetan araupezen diren laguntzen erakunde onuradunak ezartzen dira, alegia, Prestakuntza Okupazionalaren Programa araupezen duen maiatzaren 16ko 83/2000 Dekretuaren 5. artikuluan sartzen diren guztiak, a) atalean adierazten direnak ezik, *“Ondorengo kontratazio konpromisoa daramaten langabetuentzako prestakuntza planak betetzeko enpresak eta enpresen elkarteak”*, hain zuzen.

1.a) puntuan bertan, ordea, Batasuneko Equal Ekimenaren gaineko nondik-norakoak ezartzeko Batzordeak Estatu kideei helarazitako komunikazioko 23. puntua jasota, esaten da *“AD-ek bazkide nukleo bat eduki beharko dute hasieratik, bidezkoak diren agenteen, hala nola, ... enpresen alorraren (bereziki enpresa txiki eta erdi mailakoak) partaidetza bermatuz,....”*

Jarduera horiek besteek bezain modu eragingarrian burutu ahal dituzten agenteak horrela baztertzeko arrazoa ez da argitzen Agindu honen testuan.

Agindu Proiektuaren 9. Artikulua

3. c) artikuluan proiektuaren azalpeneko memorian adierazi behar diren datuak xehatzen dira, eta ezartzen da memoria horretan *“proiektuaren jardueraren alorrean edo eremuan aurre egin nahi zaioneko desberdintasun edota bereizkeriaren arazoaren analisia,, abiapuntutzat generoaren ikuspegita hartuta”* jaso behar dela.

Batzordeak Estatu kideei Batasuneko Equal Ekimenaren nondik-norakoak argitzeko helarazitako komunikazioak 60. puntuan *“Estatu kideek Equal-en programazio, betearazte, jarraipen eta ebaluazio faseetan generoaren ikuspegia sartu beharko dute”* dioten arren, Equal ekimenak mota guztietako desberdintasun eta bereizkerien aurka borrokatzeko metodo berriak sustatu eta bultzatzen dituzten proiektuak finantzatzeko asmoa duenez, ez du ematen generoaren ikuspegiak proiektu guztien arazoak aztertzeko abiapuntua izan behar duenik. Izan ere, gizon eta emakumeen arteko desorekak murrizteko helburua duten proiektuetan hala izan beharko du. Horregatik, esaldi horren ordez beste hau jartzea proposatzen dugu: **“generoaren ikuspegia kontuan hartuta”**.

Agindu Proiektuaren 11. Artikulua

Euskadiko EGBk uste du objektibo eta gardentasun irizpideei, artikulu honen 1. atalaren idazketan, eragingarritasunaren irizpidea halaber erantsi behar zaiela. Hartara, hauxe dioten tokian: *“Deialdi irekiaren bitartez aurkezten diren laguntza eskariak objektibo eta gardentasun irizpideetan oinarrituz hautatuko dira”*, gure ustez hauxe erantsi beharko litzateke: **“... eta eragingarritasun irizpidean ere oinarrituz, enplegua sortzearen alderdiko eta bereizkeriari eta desberdintasunari aurre egiteko proiektuetan ez ezik abian dauden ekonomia eta produkzio planetarako ekarpenetan osagarri izateko ere bai....”**.

Era berean, uste dugu egokia litzatekeela 2. ataleko leerroaldearen amaieran ondorengo azpimarratu hau eranstea: **“...hautapen garden, objektibo eta eragingarria bermatuko duen puntuazioen baremoa aplikatutako dutenak.”**

Bestalde, gure ustez proiektuen Ebaluazio Batzordearen eraketan gizarteko mintzakideek ere parte hartzea ziurtatu beharko litzateke, Prestakuntza Okupazionalaren Programa araupezen duen maiatzaren 16ko 83/2000 Dekretuaren 9. artikulua Enplegu eta Prestakuntza Zuzendaria izendatutako Enplegu eta Prestakuntza Zuzendaritzako lau teknikariez gain.

Agindu Proiektuaren 12. Artikulua

Euskadiko EGBk uste du 1.b) ataleko ondoko esaldi hau kendu: **“Beraz, jardunaren eremuan, udal, eskualde, nazio zein batasun mailako beste programa batzuekiko dagoen elkarren osagarritasuna adieraziko da, Enpleguaren aldeko Ekintzarako Nazio Mailako Planean ezartzen denari bereziki begiratuz.”**, eta horren ordez hauxe jarri beharko litzatekeela: **Beraz, jardunaren eremuan, batasuneko beste baliabide eta programa batzuekiko eta lurraldeko planekiko dagoen elkarren osagarritasuna adieraziko da.”**

Euskadiko EGBk 1.g) atalaren idazketa berria proposatzen du, batetik gizon eta emakumeen arteko berdintasuna gehiago azpimarratuko duena, eta bestetik gazteriaren alorra erantsiko duena. Hartara, ondoko idazketa honi egokiago deritzogu: **“...programaren diseinuan eta betearaztean gizon eta emakumeen arteko berdintasunari eustea, eta gazteriaren esplotazioa eta bereizkeriako tratua ezabatzea.”**

Proiektuetan ingurumenaren alderdia sartzen duen 2.e) atalean azpimarratutakoa eranstea ere proposatzen dugu: **“Ingurumena babestu eta hobetzeko neurriak sartzea eta neurriok betetzeari jarraipena eta kontrola egiteko sistema ezartzea.”**

Amaitzeko, Euskadiko EGBk uste du EAEko Gaitasun Profesionaleko sistemari lotutako Prestakuntzako Katalogo Modular Integratua eranstea ere baloratu behar dela. Gure iritziz, lan merkatuan txertatzeko zailtasun berezia duten giza taldeak lan merkatuan txerta daitezten sustatzera bideratzen denez, helburu hori betetzeko duten gaitasun profesionala ere baloratu behar da. Horregatik, Prestakuntza Okupazionalako Azpisistema Lanbide Heziketako Euskal Planari eta gaitasun profesionalen sistemari lotuta eta txertatuta dagoenez, Lanbide Heziketako Euskal Kontseiluaren barruan gaitasun profesionala egiazta dezaketen ikastegiei dagokienez hartutako irizpideak bete daitezten ere baloratu behar da.

IV.- ONDORIOAK

Euskadiko EGBren ustez Europar Batasuneko EQUAL Ekimenaren diru laguntzei Euskadiko Autonomia Erkidegoan eutsi ahal izateko lehen deialdia araupetzen duen Aginduaren Proiektuaren izapidetzea egokia dela, baina aholkularitzako erakunde honek egindako oharrak kontuan hartuta.

Bilbon, 2001eko Martxoaren 30ean

OE. Burua
Rafael Puntonet del Río

Idazkari nagusia
Manuel Aranburu Olaetxea

EUSKADIKO KOOPERATIBEN KONFEDERAZIOKO ORDEZKARIAK EMAN DUEN BOTO BEREZIA

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea arautu duten xedapenak lege aldetik gaizki interpretatu direla eta, nik ordezkatzan dudan erakundeak boto berezi hau eman aurretik irizpenaren aurkako botoa eman behar izan du. Botoa eman ahal izateko horixe egin behar izan dugu nahiz eta Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa irizpenaren edukiarekin bat etorri.

Gure jardueraren "ez ohiko prozesua" justifikatu dugu beren beregi ager dadin eta egokitzat jotzen den bezala azter dadin, horrela ba, ondoren gure boto berezia azalduko dugu.

III. Kapituluaren bederatzigarren in fine parrafoari egin genion zuzenketa ezeztatu egin zuen EEGABren Osoko Bilkurak. Horrela ba, ez da pisuzko arrazoirik eman gure irizpidea aldatzeko eta hori dela eta eman dugu boto berezi hau, III. Kapituluaren bederatzigarren in fine parrafoari buruz dugun iritzia zein den ager dadin.

ALDATU ETA BATZEKO ZUZENKETA PARTZIALA: III. KAPITULUKO BEDERATZIGARREN IN FINE PARRAFOA DELA

ETA, hau dioen tokian ... enplegu eta trebakuntzarako programaren jarraipena egiteko batzordeak bezala.

NIRE BOTO BEREZIA, HORI HONELA IDAZTEA IZANGO LITZATEKE, ... enplegu eta trebakuntzarako programaren jarraipena egiteko batzordeak bezala. Administrazioaz gain, batzorde hori gizarte agenteek eta agente ekonomikoek osa dezatela.

Gure boto bereziaren justifikazioa ondokoa da: une honetan enplegu eta trebakuntzarako batzordearen jarraipena honako hauek osatzen dute: CONFEBASK, SINDIKATUEK eta ADMINISTRAZIOAK. Horrela ba, batzorde horretan ez dago kooperatiben eta euren bazkideen ordezkariarik eta ezta beste agenteen ordezkariarik ere. Hori dela eta egoera ekonomiko eta gizartearen egoera benetan islatu behar da batzorde horretan Administrazioak jada badu ordezkari nahiko eta.

Bilbon, 2001eko martxoaren 30ean.

Sin. Javier Sanz Santaolalla